



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

AITOR AGIRRE ALKORTA

zinegotziak

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko martxoaren 14an, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta udalburua izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

- 1.- 675/2011 Dekretua. Zakar, Asura, Sastinberri Pistetako obrak kontratatzea, BONATXO S.L. HONDALANAK enpresarekin.
- 2.- 678/2011 Dekretua. Lizartzan Ipintza eta Iruntzialdeko Tramoetan Edateko Ura Banatzeko Sareen Hobekuntzaren proiektuaren bermea itzultzea.
- 3.- 690/2011 Dekretua. Urrate Berri Eraikuntzak S.L., obratako lizentzia.
- 4.- 693/2011 Dekretua. Lourdes Loidi Aizpurua. obratako lizentzia.
- 5.- 695/2011 Dekretua. Urkibi Eraikuntzak, obratako lizentzia.
- 6.- 697/2011 Dekretua. Lartzaldeko Pistako obrak kontratatzea. EXCAVACIONES J.M. ARROSPIDE enpresarekin.
- 7.- 698/2011 Dekretua. Abenduko fakturak onartzea



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 8.- 699/2011 Dekretua. Abenduko nominak onartzea.
- 9.- 9/2012 Dekretua. Naturgas Energia. 2011 urteko 4. hiruhilabeteko likidazioa.
- 10.- 17/2012 Dekretua. Urtarrilaren 18ko Urjentzizko Bilkurarako deia.
- 11.- 37/2012 Dekretua. Udal Biztanleen Erroldatik Baja ematea.
- 12.- 57/2012 Dekretua. Urtarrileko nominak onartzea.
- 13.- 58/2012 Dekretua. Urtarrileko fakturak onartzea.
- 14.- 64/2012 Dekretua. 2011 urteko 4. hiruhilabeteko uraren zergaren errolda onartzea.
- 15.- 65/2012 Dekretua. 2011 urteko 4. hiruhilabeteko zaborraren zergaren errolda onartzea.
- 16.- 76/2012 Dekretua. Martin Etxeberria Maiz, obratako lizentzia.
- 17.- 78/2012 Dekretua. Casa Eceiza S.L., industriarako depuradora berria egiteko obratako lizentzia.
- 18.- 93/2012 Dekretua. Baimenik gabe eginiko obrak kentzeko agintzea.
- 19.- 95/2012 Dekretua. Juan Carmelo Goikoetxea. Iragarki-seinalea jartzeko baimena.
- 20.- 98/2012 Dekretua. Lodosako Ibaialde Ikastolari laguntza.
- 21.- 116/2012 Dekretua. Gizarte Larrialdietarako Laguntza.
- 22.- 117/2012 Dekretua. Gizarte Larrialdietarako Laguntza.
- 23.- 156/2012 Dekretua. Iñaki Altuna Azurmendi. Kale Nagusia, 14 zenbakian kokatutako eraikina, lehenengoz erabaltzeko lizentzia.
- 24.- 158/2012 Dekretua. San Fermin Ikastolari laguntza.
- 25.- 159/2012 Dekretua. Herri Urrats-i laguntza.
- 26.- 160/2012 Dekretua. Otsabio Kirol Elkarteari laguntza.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 27.- 162/2012 Dekretua. Otsolar Dantza Taldeari laguntza.
- 28.- 164/2012 Dekretua. Lizartzako Eskolari laguntza.
- 29.- 166/2012 Dekretua. Etxez Etxeko Zerbitzua onartzea.
- 30.- 168/2012 Dekretua. Excavaciones J.M. Arrospide-ri, eginiko lanen fakturak onartzea.
- 31.- 169/2012 Dekretua. Otsaileko Nominak onartzea.
- 32.- 170/2012 Dekretua. Otsaileko Fakturak onartzea.
- 33.- 182/2012 Dekretua. Casa Eceiza S.L. Markesina legeztatzea.
- 34.- 184/2012 Dekretua. Katastroan Aldaketa Egitea.
- 35.- 191/2012 Dekretua. Gaurko bilerako deia.
- 36.- 194/2012 Dekretua. Udal Biztanleen Erroldatik baja ematea.

3.- 2011 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2011eko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

- 1.- Lizartzako Udaleko 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2011-12-31n		110.851,79
Kobratu gabeko saldoak, 2011-12-31n		+ 12.521,60
Aurrekontuko zordunak Aurrekontuz kanpoko zordunak - Aplikatu gabeko kobrantzak	+ 10.000,00 + 2.521,60 0,00	
Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n		- 110.438,43
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak - Aplikatu gabeko ordainketak	- 52.272,78 - 58.165,65	
Diruzaintzako gerakin gordina		12.934,96
Saldo kobragaitzak	-----	
Diruzaintzako gerakin likidoa		12.934,96
Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		- 76.526,83
Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza		- 78.152,91
Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza		0,00
Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik		1.626,08
Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		-----
Aurrekontu emaitza		11.779,81
Txerta daitezkeen kreditu gerakinak		-----
Txertatu ezin diren kreditu gerakinak		44.395,71
Kreditu Gerakinak, guztira		56.175,52

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

4.- KREDITU ALDAKETA

KREDITU TRANSFERENTZIA

Gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, hain zuzen, 30001-2012 zenbakiarekin identifikatua eta Udal honen aurtengo aurrekontuari eragiten diona.

Idazkari-Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola ikusi dugu eta, zehazkiago, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola. Ogasuneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du eta, halaber, espedientea onartzea proposatu du.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3 eta 4. apartatuetan ematen dizkidaten eskumenez (*) baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenik.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
933.010.01.01.	Maileguen Amortizazioa	98.123,90	43.405,56	54.718,34
GUZTIRA		98.123,90	43.405,56	54.718,34

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza Aumento	Amaierako Kreditua
213.449.01.01	Ibilgailuaren Mantenimendua	500,00	3.470,23	3.970,23
226.452.01.01	Udalak Antolatutako Ekintzak	-----	6.580,00	6.580,00
	Gimnasi Ikastaroa 2.700,00			
	Pelota Ikastaroa 1.080,00			
	Pilates Ikastaroa 2.800,00			
227.121.04.01	Web Orriaren Mantenimendua	700,00	769,10	1.469,10
430.313.01.01	Gizarte Zerbitzuak. Etxez Etxeko Laguntza Zerbit.	-----	1.516,73	1.516,73
430.313.02.01	Gizarte Zerbitzuak. Larrialdietako Laguntza	4.508,00	1.069,50	5.577,50
430.313.09.01	Gizarte Zerbitzuetako Batzordea	4.500,00	1.500,00	6.000,00
430.454.01.01	Festa Batzordea	1.000,00	5.000,00	6.000,00
430.456.01.01	Kultura Batzordea	1.000,00	5.000,00	6.000,00
430.711.01.01	Menditako Batzordea	-----	6.000,00	6.000,00
480.459.01.01	Familiei Laguntzak	-----	10.800,00	10.800,00
481.459.01.01	Erakundeei Laguntzak	1.000,00	1.700,00	2.700,00
	Otsabio Kirol Elkarteak 1.000,00			
	Ihauteriak 700,00			
GUZTIRA		13.208,00	43.405,56	56.613,56

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

**KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU
ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
430.313.01.01	Gizarte Zerbitzuak. Etxez Etxeko Laguntza Z.	1.516,73	7.478,34	8.547,84
GUZTIRA		1.516,73	7.478,34	8.547,84

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
310.313.09.15	Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua. Onuraduna	-----	28,10	28,10
420.313.01.01	F.A. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	-----	7.450,24	7.450,24
GUZTIRA		-----	7.478,34	7.478,34

- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

5.- LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA

LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA

IKUSIRIK, Herri-administrazio eta justizia sailaren Toki Araubidearen eta administrazio-erregistro Zuzendaritzatik egindako errekerimendua;

IKUSIZ, Lizartzako udalaren lanpostuen zerrenda barnean duela Idazkari Kontuhartzaile lanpostua B titulazio taldearen barruan sailkatzen dena (A2, Langile Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorraren terminologiaren arabera);

IKUSIZ, Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzako gordetako lanpostuak hautatu eta betetzeko sistemak erregulatzen dituen araudia aldatzeko den ekainaren 27ko 834/2003 Errege Dekretua indarrean sartu eta gero, hirugarren



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

mailako idazkari lanpostuak toki administrazioetako funtzionarioentzat gordeta daudenak, A titulazio taldean, A1 azpitaldean sartuta geratzen direla;

IKUSIZ, Maiatzaren 13ko 522/2005 Errege Dekretuak, Gaikuntza Nazionala duten Toki Administrazioako Funtzionarioen eskalako, Idazkaritza - Kontuhartzailtza azpi-eskalako, funtzionarioak A multzoan sartzeko baldintzak aldatzen dituenak, artikulu bakarrean

(Laugarren atala) honako hau ezartzen duela:

“ Los funcionarios de Administración local con habilitación de carácter nacional pertenecientes a la Subescala de Secretaría-Intervención que no cumplan alguno de los requisitos recogidos en los párrafos a y b del apartado 1 o que no superen el proceso selectivo previsto en el párrafo c de dicho apartado 1 quedarán como categoría a extinguir en el grupo B. No obstante, conservarán sus derechos económicos y estarán habilitados para desempeñar puestos de trabajo reservados a funcionarios con habilitación de carácter nacional en las mismas condiciones que los funcionarios integrados en la Subescala de Secretaría-Intervención. A estos efectos, las corporaciones locales, en el ámbito de sus respectivas competencias, realizarán las modificaciones que resulten necesarias en las relaciones de puestos de trabajo.”

IKUSIZ, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, 76. artikulua araberak, Karrerako Funtzionarioen klasifikazio profesionalaren taldeak ezartzen ditu.

IKUSIZ, aipatutako artikuluek diotenari jarraituz lanpostuak aldatzea betebeharpekoa dela.

KONTUTAN HARTUZ, autonomia-erkidegoko funtzionarioen lege arautzaileak agintzen dituen, uztailaren 6ko 6/1989 legeak (EHAren 144. zenbakia) bere 13.etik 19.erako artikuluetan xedatutakoa, azaroaren 7ko 16/1997 legeak (EHAren 221. Zenbakia) sartutako aldaketekin batera, lanpostuen zerrendei dagokienez (zein dira derrigorrezko zehaztapenak, onespenerako izapideak, argitaratzea, eta abar)

KONTUTAN HARTUZ, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen (BOEren 80. Zenbakia) 22.1.i) artikulua langileen eta lanpostuen zerrenda onartzeko udaletxeko osoko bilkurari esleitu dion eskumena.

Aipatutako xedapenak beste aplikazio orokorreko arauekin batera, aho batez hurrengo **AKORDIOA** onartzen da:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Lehenengo: Lizartzako Udaletxe Txit Gorenaren LANPOSTUEN ZERRENDAREN aldaketa onartzea, hurrengo moduan:

- IDAZKARI-KONTU HARTZAILE lanpostuaren sailkapena A titulazio taldera aldatuko da, A1-A2 azpitaldera.
- ADMINISTRARI-LAGUNTZAILE lanpostuaren sailkapena C titulazio taldera aldatuko da, C2 azpitaldera.
- GIZARTE LANGILE lanpostuaren sailkapena A titulazio taldera aldatuko da, A-2 azpitaldera.
- LANETAKO OFIZIALA lanpostuaren sailkapena C titulazio taldera aldatuko da, C2 azpitaldera.
- LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILE lanpostuaren sailkapena C titulazio taldera aldatuko da, C2 azpitaldera.
- GARBITZAILE lanpostuaren sailkapena C titulazio taldera aldatuko da, C2 azpitaldera.

Bigarren: Dagokion iragarkiaren eta aldaketen argitalpena agintzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarren: Honako akordioa jakinaraztea akordioak berak eragiten dien udaletxeko langile guztiei, hala nola langileen ordezkariari.

6.- ESPETXEETAKO PRESOEI EGINDAKO BISITETAKO GARRAIO-GASTUEN INGURUKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA

ESPETXEETAKO PRESOEI EGINDAKO BISITETAKO GARRAIO-GASTUEN INGURUKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK arautzeko udal-ordenantza onartzea Udalaren interesekoa dela aintzat hartuta;

Aztertuta Idazkaritzak, 2012ko martxoaren 5ean, legedi aplikagarriari eta aipatutako ordenantza onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz idatzitako txostena;

Aztertuta, orobat, Gizarte Ongizateko udal-zerbitzuek ESPETXEETAKO PRESOEI EGINDAKO BISITETAKO GARRAIO-GASTUEN INGURUKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua (alkateak 2012ko martxoaren 6an eskatu eta Udal honetan 2012ko martxoaren 8an jaso);

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera, Udalbatzak bilera ohizkoa egin du 2012ko



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

martxoaren 14an; bilera horretara bertaratutako kideek gaia aztertu eta bozkatu ondoren aho batez

ERABAKI DA

LEHENA. ESPETXEETAKO PRESOEI EGINDAKO BISITETAKO GARRAIO-GASTUEN INGURUKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea agiri honetan jasotzen den moduan:

EXPETXEETAKO PRESOEI EGINDAKO BISITETAKO GARRAIO-GASTUEN
INGURUKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA

1.- Xedea

Udal Ordenantza honetan aurreikusitako laguntzak diru-laguntza gisa emango dira; eta beraz, ordenantzaren xedea Lizartzako Udalak eman ahal izango dituen diru-laguntzak erregulatzea da. Laguntzen helburua da presondegietara egiten dituzten bisitak direla-eta, dagoeneko zigortuta edo behin-behinean kartzelaraturik daudenen senideei edo antzeko erlazioa dituenen sortzen zaizkien joan-etorrien gastuen zati bat diru laguntzea.

Zigortua edo behin-behinean kartzelaraturik daudenei bisitak egiterakoan sortutako gastu handiei aurre egiteko diruz lagundu nahi dira presoek gertukoak.

2.- Edukia

Diru-laguntzen xedea Udalaren esku geratzen da garraio edo bidaia egiteko beharrezkoak diren beste gastu justifikatuak ordaintzea.

3.- Onuradunak

Honako hauek jaso ahal izango dituzte laguntzak: Euskal Autonomia Erkidegoan edo kanpoko karteletan zigortuta edo behin-behinean kartzelaraturik dauden pertsonen senideak edo antzeko erlazioa duten pertsonak.

Onuradun bakarra egongo da zigortuta edo behin-behinean kartzelaraturik dagoen bakoitzeko, eta diru-laguntzaren jasotzaileak gutxienez azken 2 urteetan eta eskabidea aurkezten duen unean bertan, Lizartza erroldatuta egon beharko du. Eta presoak edo behin-behinean kartzelan dagoenak, bestalde, Lizartzan erroldatutako egon behar du.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Horrela, zigortuta edo behin-behinean kartzelaraturik daudenei baldintza betetzen dituzten pertsona batek baino behiagok bisitatzen badituzte, lehentasuna ezarriko da senidetasun graduen arabera. Lehentasun handieneko pertsonak kanpoan uzten dituzte, laguntza jasotzeko, lehentasun maila txikiagoan dauden pertsonak.

Dena den, Alkateak, edo delegazioz, Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek aurkeztu daitezkeen erroldatuak ez daudenen egoera eta senide antzeko erlazioak aztertu eta erabakitzeko ahalmena du (adibidez, presoak edo senidea Lizartzan jaio izatea eta ez egotea erroldatuta, presoak edo senidea Lizartzan bizi izana, harreman berezia izatea, harreman pertsonala eta abar).

4.- Onuradunen betebeharrak

Araudi honetako laguntzekin lotura izan dezaketen zigorpean dauden edo prebentzioan preso dauden pertsonen eta onuradunen egoeran izan daitezkeen aldaketa idatziz adierazi behar zaizkio eta behar bezala egiaztatu Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariei; aldaketa gertatu denetik, gehienez ere 30 eguneko epean.

5.- Aurkeztu beharreko agiriak

Araudi honetan arautzen diren laguntzak jaso nahi dituzten pertsonak, batetik, eskaera bete eta udaletxean aurkeztu behar dute, hartarako emango zaien inprimaki espezifikoan, eta bestetik, horrekin batera dokumentazio hauxe erantsi behar dute:

- a) Eskatzailearen N.A. fotokopia.
- b) Eskatzailea eta presoaren errolda ziurtagiria.
- c) Kartzelaratutakoarekin aipatu den harremana zehazten duen agiri edo aitormena (famili liburua ...)
- d) Kartzelaratuta dagoen pertsonaren agiria.
- e) Bizikidetzaren unitate guztien dirusarreraren egiaztapenak: (Pentsioak, nominak edo beste dirusarreraren agiriak).

6.- Aurkezteko epea

Ez da finkatu eskabideak aurkezteko eperik, baina eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera laguntza jasotzeko eskubidea sortuko da. Bi aukera izango dituzte onuradunek:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- a) Hilero laguntza eskaera aurkeztea. Kasu horretan, diru-laguntza hori, gehienez ere, hilean behin jasoko dute.
- b) Laguntza eskaera urtean behin aurkeztea. Kasu horretan, laguntza urtean behin jasoko dute.

7.- Prozedura

Diru-laguntza eskaera Lizartzako Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko da, beharrezko dokumentazioarekin batera. Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez dela ulertuz gero, hamar eguneko epea utziko dute interesatuek falta diren agiriak aurkez ditzaten. Agiri horiek epe horretan jasotzen ez badira, ez dela diru-laguntza eskaerarik izan ulertuko da eta, administrazio-prozeduraren legeak dioenaren arabera jakinaraziko zaio interesatuari.

Eskaera aurkeztu eta 10 eguneko epean, alkateak, edo delegazioz, Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek, diru-laguntza eskaria erabakiko du, departamentuko teknikarien txostena irakurri eta gero. Ebazpenen aurka indarrean dagoen legedian aurreikusitako errekursoak tarteratu ahal izango dira.

Aparteko suposamenduak erabakitzeke eskumena osoko bilkurari dagokio eta kasu horietarako hilabeteko epea izango du. Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek suposamendu horiei buruzko iritzia emango du.

8.- Aurrekontua

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzak finantzatzeko, Lizartzako Udalak aurreikuspen berezia egingo du bere aurrekontuan, 10.800,00 €.

Aurrekontu laguntza onuradunen eskabide guztiak betetzera iristen ez bada, handitzeko aukera aztertuko da, udal aurrekontua betetzeko arauetan aurreikusten diren kredituak aldatzeko mekanismoen bidez.

Araudi honetan datozen laguntzak beste edozein laguntza edo diru-laguntza lortzarekin bateragarriak izango dira, xede berarekin beste edozein administrazio publikotatik lortzen badira ere, baina ezingo da joan-etorrien gastu guztien kostua gainditu.

Horrela, kostu osoa gainditzen duela ulertuko da, baldin eta jasotako laguntzak, oro har, kilometro eta bisitako, 0,35 € kopurutik gora egiten dutenean.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Emandako diru-laguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, itzuli egin beharko zaio Udalari kostutik gorako kopurua.

9.- Banakako diru-laguntzen zenbatekoa

Gutxieneko diru-laguntza:

3. artikuluan ezarri bezala, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten guztiek, baldin eta diru-laguntza eskaera bete eta aurkezten badute, eskubide izango dute, gutxienez, diru-laguntza hau lortzeko:

Lizartzatik espexera zenbat kilometro dagoen (joan-etorria), bider 0,24, gehi autopistako bidesaria izango da laguntza zenbatekoa. Gehienez hilean 2 bidai laguntza emango da. Banakako diru-laguntza bat ematea proposatuko du Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek, kasu bakoitzaren arabera, eta gehienez, 300,00 €-ko diru-laguntza izanik hileko.

Eskabide kopuruak zenbateko handiagoa ematea eskatzen badu aurrekontuko zenbatekoa eskatzaileen artean banatuko da eta jaso beharreko zenbateko gutxitua banatu egingo da.

Murrizketa hau egiteko eta zer ehuneko aplikatu den jakiteko diru-sarrerak kontuan hartuko dira.

Bizikidetzta-unitateko kide kopurua	%0	%25	%50	%75	%100
1	31.209,12€	27.307,98€	23.406,84€	19.505,70€	15.604,56€
2	40.075,20€	35.064,75€	30.056,40€	25.047,00€	20.037,60€
3	44.330,00€	38.789,52€	33.248,16€	27.706,80€	22.165,44€

Hurrengo urteetan kopuru hauek KPI-arekin igotzen joango dira.

10.- Frogatzeko epea eta erak

Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu behar du berak edo oinarri-arau espezifikotako 3. artikuluan agertzen diren onuradun gaietako batek benetan bisitatu duela zigorpean dagoen edo prebentzio kartzela duen pertsona. Horretarako, espexeko zuzendariak egindako ziurtagiria aurkeztuko du onuradunak, eta bertan adierazita egongo da zenbat bisita egin duen benetan hil horretan onuradunak.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Aurrekoaren ordeztuz, egin diren bisiten kopurua zehaztuz egindako zinpeko adierazpena onartu daiteke frogagiri moduan.

Lehen adierazitakoaren kalterik gabe, espetxeak egindako ziurtagiria nahiz bisita egin izanaren zinpeko adierazpena, egindako bisitak benetan egin direla egiaztatzen duen beste edozein agiriz ordezkatu ahal izango dira, zuzenbidean baliozkoak badira.

Horrez gain, egindako gastuen frogagiriak aurkeztu beharko dira (autobideko txartela e.a.)

Diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, artikulua honetan ezartzen diren egiaztapen eta aldeko udal akordioa lortu ondoren.

11.- Araudiaren interpretazioa eta sartu gabeko gaien ebazpena

Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariak proposatuta, alkateak edota berak eskuordetza emandako organoak ebatziko ditu araudi honetan jasota ez dauden gaiak eta, araudiaren interpretazioan, aplikazioan edo ondorioetan sor daitezkeen zalantzak.

12.- Azken xedapena

Araudi hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

BIGARRENA. Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udalbatzak aztertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udalbatzak berriaz erabakia emateko beharrik gabe.

HIRUGARRENA. Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.

7.- 2011ko AZAROAren 5 eta 6an IZANDAKO EURITEEK SORTUTAKO KALTEAK KONPONTZEKO LAGUNTZA ESKAERA

2012ko martxoaren 1eko, 42 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 6/2012 FORU DEKRETUA, otsailaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Historikoko udalei aparteko laguntzak ematekoa 2011ko azaroaren 5ean eta 6an izan ziren aparteko euriteen ondoriozko kalteak arintzeko laguntzak onartzen dituen.

6/2012 Foru Dekretuaren 7.2 artikulua dio:

Udal onuradunek beregain hartu behar dute, oro har, egin beharreko jardueren gastu finantzarriaren %50a. Jarduera horiek udalek beraiek ezarritako hurrenkeraren arabera zehaztuko dira. Halaber, udalak kreditu egokia eta nahikoa xedatzeko konpromisoa hartu beharko du.

Hori kontutan hartuz, Udal honek, aho batez erabaki du:

2011ko azaroaren 5ean eta 6an izan ziren aparteko euriteen ondoriozko kalteak arintzeko diru laguntza eskatzea eta diruz lagundutako jarduerarentzat behar den kreditua xedatzeko konpromisoa hartzea

8.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia